

Grupo SSIk langileen ongizaterako tresna berria jarri du abian

Grupo SSI kooperatibak mendekotasuna duten pertsonentzat etxez etxeko arreta eskaintzen du, eta langileen ongizatea zaintzeko lanbide profil berria ezarri dute: «Osasun muskulu-eskeletikoaren sustatzailea». Hain zuzen ere, zaintza eskaintzen duten langileekin batera prebentzio lana egiteaz arduratzen da.

ERREPORTAIA

Nerea LAUZIRIKA

Zaintzen dutenen osasuna zaintzeko helburuarekin, Grupo SSIk profil profesional berri bat abian jarri du. Andere Goirigolzarri eta Unai Latorre taldeko kideek GARARI azaldu diote langileen osasun muskulu-eskeletikoa sustatzea dela xedea, nahiz eta, ezinbestean, zerbitzuaren kalitateari ere eragingo dion.

Profil profesional berria sortu dute, Latorre bera betetzen ari dena, zaintza lanetan ari diren langileekin harreman zuzena izan eta prebentzio lana egin dezan.

Zainketak eremu profesionaletik zein familiaratik egiten dituzten pertsonak muskulu-eskeletoen gaixotasun prebalentzia handia izaten dute, ziurtatu dute Goirigolzarrik zein Latorrek, eta muskulu-eskeletoen nahasmenduak izateko arrisku handia daukate, ondorioz.

Izan ere, zainketen eremua da enplegu pribatuan giharretako eta hezurretako gaitz gehien dakartzan bigarren arloa, eta mina da lana uzteko arrazoi nagusia.

Zainketen eremuan lan egiten dutenen arrisku-faktore batzuk dira karga astunak eskuz maneiatzea, posizio behartuetan lan egitea eta mugimendu errepikakorrek burutzea.

Gainera, faktore horietako asko larriagotu egin daitezke zaindutako pertsonaren mendekotasun-mailak aurrera egin ahala. Estres bide horiek eta haiek eragindako gihar-hezurretako gaitzak garaiz identifikatzea funtsezkoa da horiek prebentzeko, adierazi dute.

Lanbide-profil berri horri “Osasun muskulu-eskeletikoaren sustatzaile” deitu diote, errealitate horri erantzuteko sortu baita espresuki. Pertsonaren min-esperientzian lagun dezaketen faktoreak identifikatzea bilatzen du, haren lanbide-jarduera eta lantokia ebaluatuz, kasu ho-

netan etxeko arreta-zerbitzuaren (ELZ) erabiltzailearen bizilekua dena.

Balorazioa egin ondoren, mina murrizteko neurriak zehaztu, ohitura osasungarriak hobetu eta lan-ingurunean aldaketak ezartzen dituzte. Neurri horiek guztiak proaktiboak dira, hots, pertsona prozesuaren pieza nagusi gisa hartzen dute, eta bere osasunaren gidaritza hartzera bultzatzen dute, ahalduntzea sustatuz.

Diotenez, garrantzitsua da arrisku potentzialei aurrea hartzea eta erorikoak, kolpeak eta bestelako istripuak saihesteko neurriak hartzea, lantoki den etxea leku eroso eta segurua bihurtuz, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko autonomia pertsonal handiagoa bermatzeko zerbitzua behar duten pertsonentzat ere.

LANBIDE-PROFIL BERRIA Lanbide-profila Lakuako Gobernuaren Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailaren ZainLab proiektuaren esparruan garatu zen, Grupo SSIk kudeatuta. Zainketen erronkari aurre egiteko profil profesional eta rol berriak identifikatzea eta inplementatzea zituena helburu.

Pilotajea EHUko AgeingOn ikerketataldearen eta Osartenen laguntzarekin egin zen 2023an, Arrigorriaga, Bilbo eta Etxebarri udalerrietan, eta 79 etxebizitza/lanpostu eta 44 langile baloratu ziren. Pilotu horren emaitzek balorazio-tresnak ebaluatzeko, etxeko inguruneetan hobekuntzak diseinatze eta sartzeko, zain-tzaileen arazoaren ezaugarriak zehazteko eta haien bizi-kalitatea hobetzeko esku-

Latorrek zain-tzaileekin egiten du lana zuzenean. GRUPO SSI

hartzeko balio izan zuten. Pilotua zain-tzaileen balorazio oso positiboarekin amaitu zen.

Gaur egun, zerbitzu hori sendotze-prozesuan dago Grupo SSI, eta figura hori kudeatzen duten Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuetan txertatuta dago. Horren adibide da Hernaniko udalerrria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuaren berrikuntza sozialeko proiektuetarako deialdiaren barruan, zerbitzu hori hedatzen hasi da.

OSASUNA ETA AUTOZAIN-TZA SUSTATZEA Grupo SSIk 38 urtetik gorako esperientzia du sektorean, eta, batez ere, etxez etxeko laguntza-zerbitzuan; zerbitzu hori Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat udalerritan ematen du gaur egun. Taldean 200 laguntzailek baino gehiagok egiten dute lan etxez etxeko laguntzan, eta haien ezagutza eta egiteko modua erakutsi eta zabal-tzen dute.

Langileen ongizatea sustatzea etengabeke kezka da taldearentzat, Goirigolzarrik zein Latorrek baieztatu dutenez. Kezka horrek bultzatu ditu osasuna sustatzeko hainbat ekimen sustatzera, hala nola, 2022az geroztik AgeingOnekin lankidetzan duten programa. Langileak prebentziara bidean formatzea du xedea, aurregaikuntza delakoaren bidez.

Programaren barnean, etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileei ariketa fisiokoaren bidez haien burua zaintzen erakusten diete, horrela, lesioak eta lanak eragindako minak ekiditeko.

